

PRESTAKUNTZA JARDUERARAKO DEIALDIA **2010-2011KO PRESTAKUNTZA PLANA. PRESTAKUNTZA ATALA**

Ikerketa lanak Bigarren Hezkuntzan

Izenburua: Ikerketa lanak Bigarren Hezkuntzan

Modalitatea: Informazio saioa

Eta: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoa

Norentzat:

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako irakasleak, arlo guztietako Batxilergoa.

Justifikazioa

Bigarren Hezkuntzako ikasgeletan proposatu daitezkeen jardueren artean, ikerketa lanak nabarmentzeko modukoak dira. Horiek potentzialtasun didaktiko asko dituzte, eta honako hauei guztiei laguntzen diete: elkarlana, autoikasketa, ekimen pertsonala eta hartutako ikasketak testuinguruan jartzea.

Irakasleak jarduera ikertzailean hasteak badu berezko balioa, baina horrez gainera, jarduera mota hauek are balio handiagoa lortzen dute gaitasunen arabera irakaskuntzaren ikuspegiarekin.

Azken urteotan ere sarien lehiaketa edo deialdi ugari egon dira –horietan nabarmendu behar da *Jóvenes Investigadores* izenekoak–; horiek motibazio gehigarri bat dira, bai ikasleentzat, bai ikerketa lan horiek bultzatzen dituzten irakasleentzat

Informazio saio horrekin bilatzen da, lehiaketa horiei buruzko informazioa emateaz gainera, irakasleei baliagarriak izan ahal zaizkien ideiak, orientabideak eta jarraibideak ematea, beren ikasleekin lan mota horiek behar bezala planteatu eta gauzatzeko.

Helburuak:

- ✓ Ikerketa zientifikoaren aldeko interesa bultzatzea Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko irakasleen artean, ikasleen espiritu ikertzailea bultzatzeko, eta horiek ikerketen jardueran murgiltzen hasteko.
- ✓ Hausnarketa egitea Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko ikasleentzat egokienak diren ikerketaren arloko proiektu edo lan motei buruz.
- ✓ Lan mota horiek ikasleekin arlo desberdinetan garatzeko metodologia eta modu eraginkorrenei buruzko hausnarketa egitea.
- ✓ *Jóvenes Investigadores* lehiaketaren eta *Investigando antes de la Universidad* mintegiaren ezaugarriak ezagutzea.

Edukiak:

- ✓ *Jóvenes Investigadores* lehiaketari eta *Investigando antes de la Universidad* mintegiari buruzko informazioa.
- ✓ Ikasleekin egiten diren ikerketa proiektuen edo lanen potentzialtasun didaktikoak Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko arloetan.
- ✓ Zer ikerketa lan mota eta nola planteatu behar diren.
- ✓ Irakasleen zeregina ikasleek lanak garatu bitartean.
- ✓ Arlo desberdinetako lanen adibideak.

Metodologia:

Hizlariaren azalpena eta bertaratutakoen parte-hartzea (galderak eta iradokizunak egiteko denbora ere izanen da).

Hizlariak:

Marina González Fernández, lizentziaduna Zientzia Biologikoetan. *Investigando antes de la Universidad* mintegiaren koordinatzailea; Hezkuntzako Ministerioak antolatutakoa da.

Ignacio Guerra Plasencia, Fisika eta Kimikako irakaslea Gijóngo Jovellanos BHI. Koordinatzaileari emandako sari berezia 2004ko *Jóvenes Investigadores* XVII. lehiaketan; 5 sari lehiaketa horretan eta "First Step to Nobel Price in Physics" nazioarteko lehiaketan. *Investigando antes de la Universidad* mintegiaren zuzendaria.

Dei-egilea: Iruñeko ILZ. Gainerako ILZ guztiei irekia.

Arduradunak:

Manuel Sada Allo, Matematikako aholkularia Iruñeko ILZn.

948 29 17 13 matematicas.cap.pamplona@pn.te.cfnavarra.es

M^a José González Machín. Natur Zientzietako aholkularia Iruñeko ILZn.

948 29 20 21 naturales.cap.pamplona@educacion.navarra.es

Tokia: Iruñeko ILZ.

Iraupena: 2 ordu

Data eta ordua: 2011ko maiatzaren 5ean, osteguna, 17:00etatik 19:00etara

Izena emateko aldia: 2011ko apirilaren 6tik 2011ko apirilaren 29a arte

Oharrak:

- Izen-ematea *on line* egiten da Iruñeko ILZren webgune berriaren bitartez, *Deitutako jarduerak eta izen-emateak* atalean (http://dpto.educacion.navarra.es/formacionprofesorado/index.php?option=com_dmarticlesfilter&view=articles&Itemid=389&lang=eu)
- Eskariak leku kopurua baino gehiago badira, izena ematean suertatutako ordenaren arabera emango dira lekuak.
- Onartuen zerrenda webgune horretan bertan ikusi ahal izango da, *Onartuen zerrendak* atalean (http://dpto.educacion.navarra.es/formacionprofesorado/index.php?option=com_dmarticlesfilter&view=articles&Itemid=389&lang=eu)

Leku kopurua: 80.

Parte-hartzaile kopurua, gutxienez: 15